



2018- 2019 IKASTURTEA

LEHEN HEZKUNTZA
1. MAILA

Agur, guraso horiek

Urtero, ikasturte hasieran egiten dugun bezala, ikasturtearen txostenaren bidez gure antolamenduaren berri eman nahi dizuegu. Dena den, laster zuekin izango dugun bileran zenbait alderdi zehaztu eta zuen zalantzak argitzen saiatuko gara.

2018-19 IKASTURTEA

AURKEZPENA

Ikasturte honetan 54 ikasle dira 3 taldetan banaturik:

LH-1A→ Ana Cupeiro

LH-1B→ Maribel Fernández

LH-1C→ Ana Otero

Tutoreekin batera espezialista hauek arituko dira zuen seme-alabekin

Gorputz Hezkuntza→ Iñaki Hernández

Ingelesa→ Amalur

Musika→ Edurne

LEHENENGO MAILA: ETAPA BERRIAREN EGOKITZAPENA Lehenengo hiruhilabetea nahiko gogorra izaten da bai haurrentzako eta baita guretzako ere: irakasle aldaketa, lan egiteko modua... Denbora behar dugu.

JARRERAK ETA LANERAKO FUNTZIONAMENDUA

Etapa honi ere helburu hauek dagozkie:

- Norberak bere buruarengan konfidantza izatea.
- Besteen aurrean haien iritzia adieraztea eta defendatzea.
- Errespetoa eta elkarrekin jator jokatzeta.
- Gero eta autonomoagoak izatea.
- Heldutasuna lortzea.

Bai eskolan, bai etxean dena emanda ematen badiegu, ez du aurrera egingo, ez du zailtasuneei aurre egiteko eta oztopoak gainditzeko errekurtsorik eskuratuko.

Intentaremos reforzar la confianza en sí mismos.

Les ayudaremos a que den sus opiniones delante del grupo y para ello daremos importancia al respeto y al saber escuchar, y que poco a poco vayan adquiriendo autonomía (importante también trabajarlo en casa).

Taldeko lanetan parte hartzeari garrantzi handia emango diogu. Haien arteko interakzioa bultzatzeko, errespetu jarrerak lantzeko,...

Daremos importancia a la implicación en el trabajo en grupo; hacerles saber que todas las aportaciones son válidas y que la interacción es muy importante. En primero trabajaremos especialmente en pareja.

- Lan egiteko eta jolasteko tarteak bereiztea.
Que sepan distinguir los momentos de juego y de trabajo. Mientras trabajamos no molestamos al compañer@.
- Laguntasuna, elkarkidetzeta, inor ez baztertzea.
Ser respetuoso con tod@s, no dejar a nadie de lado...
- Ardurak. Haiek kontrolatzea bere eginbeharrak. Zuen laguntza izan, baina bere ardura dela jakin behar dute. Adibidez, kamiseta prestatu, ordutegia begiratu, menua, ...
Responsabilidades. Que controlen sus quehaceres. Nosot@s estamos para ayudarles pero no para darles todo hecho...
- Ondo eserita egotea.
Sentarse bien tanto en la silla como cuando estamos en el suelo.
- Norberaren eta besteen materiala eta gauzak era egokian erabiltzen eta gordetzen ikastea.
Respeto tanto a sus cosas como a las de los demás y al material de la escuela...

ARLOAK

AHOZKO HIZKUNTZA

Helburua haurrek bere ideiak, bizipenak eta sentimenduak modu ulergarri batean azaltzen jakitea da. Hortarako, saio kolektiboetan, haiek nahi dutena kontatzeko aukera emango diegu. Haur batek bere buruan duena besteei argi azaltzeko, ideiak antolatu behar ditu.

Beste aldetik, kideen aurrean modu egokian eta euskera zuzenaz hitz egiten landuko dugu, ahots doinua, gorputz jarrera eta mezu zuzena kontuan edukita. Hau egunero bete behar dituzten arduradunen lanekin jorratuko dugu. Bi ardura daude: eguneko eguraldia eta menua azaltzea. Astero ardura bakoitza 2 arduradunek bete beharko dute. Bere lana prestatu ondoren gelakoei azaldu beharko diete modu ulergarri eta egoki batean.

Beraz, seme-alabekin hitz egiterakoan, lagundu iezaiozue ideiak argi azaltzen. ENTZUN ETA UTZI HITZ EGITEN.

IRRATIA

Irratia beste tresna bat da ahozko hizkuntza lantzeko.

Astero talde batek hartzen du irratsaio bakoitza prestatzeko ardura. 1. Mailakoen txanda 2. hiruhilekoan izaten da, lehenengoan egokitzen eta kokatzen lan nahikoa badugu eta.

Irratsaioa ondo prestatzeko etxera eramango dute esan behar duten testoa, zuen laguntzaz ikasteko.

Irratsaioak grabatu egiten dira eta eskolako web orrian entzuteko aukera dago.

EUSKARAREN ERABILERA

Euskararen erabilerarekin kezka dago. Eskolan horren inguruan ari gara, formakuntzan ari gara eta ateratako ondoretako bat hauxe da:

Eskolak bakarrik ezin du euskararen erabilera sustatu, eta arrazoia hemen duzue:

Zuen semeak eskolan pasatzen duten denbora ez da luzea.

Zer egin daiteke?

Familia euskaldunak: EUSKARA ERABILI

Familia ez euskaldunak: MOTIBATU, INPLIKATU, JARRERA POSITBOA, BALIOA EMAN.

Eta garrantzitsuena: etxeko hizkuntza ondo garatzen lagundu.

Gaur egun guztiok ezagutzen ditugu oinarri-oinarrizko eta egunero erabiltzen diren egiturak: agurrak, zer moduz, afaltzeko ordua, bainatzeko ordua, goazen, berandu da...

IRAKURKETA-IDAIZKETA

Haur Hezkuntzan hartutako bidean jarraituko dugu, testu mota desberdinak landuz: izen abizenak, ipuinak, albisteak, olerkiak, iragarkiak...

Ume bakoitzak bere aprendizaiara eraikitzen du, guztiak ez daude une berean.

Batzuk izugarriko inseguritate eta beldurra dute eta bilatzen duten errekurtoa kopiarena izaten da. Guk, kopia zenbait momentutan erabiltzen badugu ere, jakinarazi eta sinistarazi behar diegu haiek ekoiztutako testoak direla balio handia dutena.

Jarrera lasaia eta presiorik gabekoa azaldu behar dugu.

Nola landu:

- Ohiturak: Astero bikoteka data, eguraldia, temperatura eta menua idazten du. Landu ondoren, kideei azaltzen die.
- Egunerokoa: egunero nahi duten zerbait (berria, bizipena, sentimendua...) idatzi eta gero guri irakurriko digute. Helburua, lan ohitura bat jorratzeaz gain, idazketaren aurrean dituzten beldurrak eta inseguridadeak poliki poliki gainditzea izango da.
- Asteburukoa: astelehenero, asteburuan egindakoa koordenan idatziko dute.
- Hiztegia: norberak bere hiztegia osatuko du.

Guk lortu behar dugun helburu bat hau da: **irakurketa eta idazketa gustokoa izatea, gozatzeko ekintza bat dela eta ez sufritzeko**. Zuek etxean hau bultzatu dezakezue haiekin irakurriz edo hurrek zerbait irakurri baldin badute zuei kontatuz...

Trabajaremos diferentes tipos de textos: noticias, cuentos, poesía, anuncios, ...

Cada niñ@ va construyendo su propio aprendizaje.

Esta claro que no todos están en la misma fase. Algunos y algunas ya leen y escriben de manera convencional, y es importante que con quien todavía no ha llegado a ello mostremos una actitud tranquila y sin presión, tanto aquí como en casa. Hay quien muestra mucha inseguridad y miedo y buscan en la copia la manera de tranquilizarse. Nosotras emplearemos en algún momento la copia para determinadas actividades pero tenemos que hacerles saber y creer que lo que verdaderamente valoramos son sus producciones propias. Aunque no lo entendamos ell@s nos lo interpretan y nosotras transcribimos.

Todos los días los responsables escriben la fecha, el tiempo que hace, el menú del comedor.

También a diario escribirán sus ideas, pensamientos, experiencias, ...

Los lunes, después de contarlo en gran grupo, escribirán en el cuaderno lo que han hecho el fin de semana.

Ez planteatu irakurketa obligazio baten moduan, lagundu disfrutatzen. Liburu, egunkari eta testu idatzietan zerbait interesgarria ikusten dezutenean, haurrarekin konpartitu, testuetan gauza interesgarri eta gozagarriak daudela ikus dezan. Animatu irakurtzen!!!

Gelako liburutegia

Helburua: Liburuetaz gozatzea.

Astean behin, arratsalde bat irakurketari eskeiniko diogu. Ipuin bat irakurri eta horren inguruan zenbait ekintza antolatuko ditugu.

Arratsalde hori haurrek etxera eramateko ipuinak har ditzaten aprobetxatuko dugu. (erakutsi fitxa).

Eramandako liburua elkarrekin irakurri, gozatu. Herriko liburutegia eskura duzue.

No plantearemos la lectura como una obligación. Les ayudaremos a que disfruten con la lectura...

MATEMATIKA

Matematikan, gelan LUIS PEREDAren liburua erabiltzen da eta etxerako lanerako BAGA-BIGA lan koadernoak.

Honekin batera tartekatuz, bizitzarekin lotura zuzena duten zenbait lan egingo ditugu (haurren pisuak, altuerak, prezioak...).

- 100 arteko zenbakiak menperatzea.
Conocer los números hasta el 100
- Zifra bakarreko bi zenbakien arteko batuketa eta kenketa buruz kalkulatzea.
Calcular mentalmente sumas y restas de dos números de una cifra.
- Batuketa burukoekin egiten jakitea.
Hacer sumas con llevadas.
- Problemak ebazten jakin. Errekurtsoak erabili emaitzak lortzeko.
Resolver problemas empleando sus propias estrategias.
- Unitate konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabili objektuak ordenatzeko eta konparatzeko beren luzera eta pisuaren arabera.
Empleo de unidades convencionales y no convencionales para ordenar y comparar objetos según su peso y largura.
- Erlojuaren funtzionamendua piskanaka ezagutu (orduak, erdiak, ...).
Funcionamiento del reloj.
- Urtea, hilabeteak, urtaroak, astearen egunak, egun aipagarriak: urtebetetzeak, jaiak...
Año, meses. Estaciones...

- Termometroaren funtzionamendua (graduak, hotza, beroa, epela...).
- Termómetro...

INGURUNE

Ingurunen natura eta gizartearen inguruko gaiak jorratuko ditugu: gorputza, animaliak, ñauteriak...

Maiz lantzen ari garen gaien inguruko informazioa eskatuko diegu zuen seme-alabei, hortarako ezinbestekoa da etxean zuek eskeiniko diezuen laguntza. Helburua ez da informazio asko ekartzea, baizik eta mamitua ekartzea, nahiz eta bi esaldi ekarri, haurrak jakitea zer jartzen duen gelakideei azaldu ahal izateko.

Cuando empezamos con un tema nuevo, se les pedira que traigan información de casa. Está bien que traigan información, pero que ellos puedan entender y explicar.

Informazioa bilatzen, aurkitzen eta ikasitakoa besteei azaltzen ikasiko dute piskanaka.

Aprenderán poco a poco a buscar información y a explicarla a los demás. Haremos hincapié en el trabajo en parejas.

Lana, askotan, binaka edo taldeka egin dezaten saiatuko gara. Hau, batzuei, oraindik oso zaila egiten bazaie ere lana taldeka egiten piskanaka ikasi behar dute.

Taldeakako lanetan, norberaren partaidetzaren garrantziaz jabetu behar dute (PIXKANAKA). Talde lana ondo ateratzeko, nik ahal dudana hoberen egin behar dut lana. GURE LANA da NIREA ERE eta ez TALDEKO BESTEENA

INFORMATIKA

Word lehenengo hastarpenak. Iniciación a Word

Hizkuntza eta matematika jolasak egingo ditugu.

Eskolak baliabide hauek ditu:

Geletan bi tablet.

Pasillo bakoitzean ordenadore eramangarriak interneteko konexiorik gabekoak.

Informatika gela: Internetera konektaturik.

PLASTIKA

Lehen hezkuntza osoan teknika ezberdinak landuko ditugu: modelaketa, margoketa, kollageak...

Sormena, behaketa, lanen aurkezpena, ordena, esku gaitasunak... izango ditugun kontutan.

MAILAZ IGAROTZEA

Mailaz igarozeko ez dugu kontuan izango bakarrik edukien barneratzea, baizik eta heldutasun maila ere.

Haur batek mailaz igarotzeko hizkuntzarako eta matematikarako oinarrizko gaitasunak gainditu behar ditu.

Erabakia tutoreak, aholkulariak eta umearekin aritzen den irakasle taldeak hartuko du.

Tutoreak azken hitza izango du.

ETXERAKO LANAK

Ostiralero eramango dituzte etxerako lanak, aste batean hizkuntzako zerbait eta hurrengoan matematikakoa ((BAGA-BIGA).

Helburua, lan ohiturak jorratzen hastea da. Bidaltzen duguna normalki, haiek bakarrik egiteko modukoa izaten da.

Zuen ardura tokia eta denbora antolatzen laguntzea izango da, interesa azaltzea.

Ez duzue lana zuzendu beharrik.

IRTEERAK

- **Listorreta.** Irailan.
- **Altzo.** Lehenengo hiruhilekoan.
- **Zinema euskaraz.**
- **Arritxulora: Maiatzak 6 eta 7**
- **Donibane**
- **Xoxolurra.**
- **Lezon zehar.**

HAMAIKETAKO OSASUNTSUAK

Elikadura osasuntsua bultzatzeko asmoz, eskolak honelako proposamena egiten dugu:

Asteazkenetan: Fruta

Ostegunetan: Ogitartekoa

Egunero izan ezkerro hobe.

Saia gaitetzen plastiko eta papera ahal den gutxien erabiltzen. Tapeware aukera egokia da.

Egunero bada hobe, baina hori zaila denez, asteazkenetan hamaiketako osasuntsua ekartzea proposatuko dizuegu.

Ea pixkanaka oihitura zabalduz doan.

Behin baino gehiagoetan erabil daiteken bilgarria bidaltzen saiatu.

HARREMANAK FAMILIEKIN

- Ikasturte hasieran orokorra guraso guztiekin.
- Otsaila aldera bakarkakoa guraso guztiekin.
- Premiazko bilerak beharrezkoak direnean (aldez aurretik eguna eta ordua adostuz).
- **Lehen Hezkuntzan hiruhilero noten boletina banatuko zaizue. Bi ale eramango dituzte, haietako bat hurrengo egunean sinatuta ekarri beharko dute.**
- **Lehenengo mailan, 1. eta 2. hiruhilekotan nota orokorra bakarrik jarriko zaie, azpiko atalik gabe.**

FAMILIEN PARTEHARTZEA ESKOLAN

- GURASO ELKARTEA: Oso inportantea da zuen partaidetza eskolako komunitatean.
- ELKARBIZITZA BEHATOKIA: Guraso ek, irakasleek, ikasleek osatzen dute eskolako elkarbizitza hobetzeko asmoz.
- OOG (Consejo escolar): taldea da non eskolako funtzionamendurako erabakiak hartzen diren.
- EUSKARA TALAIA
- OHARRAK

ESKOLAKO PROIEKTU OROKORRAK

Eskola osoan gauzatzen ari garen proiektuak.

- IK/KI: Ikasi kooperatuz eta kooperatuz ikasiz.
- AGENDA 21: Urtero ingurumenarekin lotutako gai bat lantzen dugu.
- SARE HEZKUNTZA: Teknologia berriak erabiltzeko proiektua.

Zenbait mailetan bakarrik:

- BIKOTEKA IRAKURTZEN: Irakurketari bultzada emateko proiektua, 3. eta 4. mailan.
- BARATZA: 4. mailan.
- ESKOLAKO LIBURUTEGIA: 3. mailatik aurrera programazioan txertatuta.

OHARRAK

- URTEBETZEAK: Bizkotxo
- JANGELARAKO OHARRAK: Oharra gelara eta guk emango Lourdesi.
- GARRAIOA: Pistan jaso
- SARRERAKO ORDUTEGIA: 09:30 eta 10:00etan Haur hrzkuntzatik eta 10:00etatik aurrera txirina jo.

Hurrei autobusa galduz gero guregana etortzeko agindua eman diegu.

Normalean autobusez dabiltzan haurrak egunen batean gurasoek joan behar badute, eguneroko irteeran jaso behar dituzte.

ARROPA

Mesedez, arropari jar iezaiozue izena bere etiketan idatzirik.

ETXETIK EZ DUTE ESKOLAKO MATERIAL BEREZIA EKARRI BEHAR, ezta jostailurik ere.